LAPURDI
UR ETA LUR

Nik ikusten dut paisajea.
Zuk ikusten duzu paisaje bera.
Baina guk ez dugu ikusten
modu berberean, batera ikusten dugun
paisaje berbera.

Bitoriano Gandiaga
"Izadiminez"

Administratiboki Frantziako Akitaniako eskualdeko Pirinio Atlantikoak departamenduko parte izanik, Lapurdi Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetako bat da. Frantziako administrazioarentzat inolako lurralde ofizialtasunik ez duen Ipar Euskal Herriko lurralde eder honentzat Pirinioak, Kantauri itsasoa (Bizkaiko golkoa) eta Aturri ibaia dira bere muga naturalak. Bere orografian bi erliebe bereizi ditzakegu: alde batetik itsasaldea dugu, Bidasoa eta Aturri ibaien artean hedatzen diren hondartza luze eta altuera txikiko labarrez osatuta, eta bestetik, Iparraldeko herrialderik jendetsuena duen Lapurdiko barnealdea, bertan Pirinioetako lehendabiziko mendi-tontorrak goititzen direlarik. Denak altuera apalekoak izan arren, talaia bikainak dira Euskal Herriko paisaia anitzen edertasunaz gozatzeko. Ibilbide hauen bidez, itsasertzeko parajeetan murgilduko gara itsasoko kresal usainak gure ibilia blaituz, Aturri ibaiaren ertzean dauden bartak ezagutzeko parada izango dugu eta azkenik, Pirinioetako lehen mendiak zeharkatuko ditugu. Mendien magaletan eta itsasertzean barreiatzen diren borda, baserri, zelai, baso eta abarretan ibiliz bertako elezahar eta istorioak gogora ekarriko ditugu. Itsasoa eta mendia, urdina eta berdea... kontrastez betetako paisaia erakargarria bezain liluragarria.

TESTU ETA ARGAZKIAK

Mikel Arrizabalaga Aizpurua
(Donostia-Eibar, 1957)

Elkar Fundazioko kidea. Martin Ugalde Kultur Parkeko arduraduna izandakoa, egun Ikas-elkar argitaletxearen edizio-zuzendaria da. Aurretik 17 urtez irakasle izana da Orereta eta Zurriola ikastoletan. Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu.

UR

ITSASERTZA

Hendaiako hondartzara jaitsi eta harresiaren paraleloan abiatuko gara parez pare Dunbak edo Harkaitz bikiak ditugularik. Harresia amaitu eta eskuinera igotzen den bidea jarraituko dugu ur-araztegiaren ondora iristeko. Aurrera segi eta aparkalekura heltzean, honen ezkerretik ateratzen den xendak Abadiako lurretan sartzeko dagoen atakara eramango gaitu. Metro batzuk gorago Larretxea harrera etxearekin egingo dugu topo.

Abadiako gazteluaren lurrekin muga egiten, 65 hektareako natura ingurune bitxi eta aberats bat zabaltzen da. Itsas Hegiko eta Aintzira Bazterretako Kontserbatorioa jabe den lur hauetan, erreserba biologiko eta geologiko garrantzitsua aurki dezakegu. Lur hauetan ekosistema desberdinak aurkituko ditugu: lantutako soroak, zelaiak, belardiak, basoak, zuhaixkak... Berrogei txori espezie baino gehiagok habia egiten dute bertan eta gainera leku aparta da hegazti migratzaileak behatzeko. Itsasora hurbilduz gero, labar gris eta arrosak gure oinpean amilduko zaizkigu.

Eskuinera doan bidea utzi eta ezkerretik jaisten dena segituko dugu. Bat batean, belardi eder bat zabalduko zaigu begien aurrean eta eskuinera, muino batean kokaturik Abadiako gaztelu bikaina. Bidea oso nabarmena da eta tarteka beste zidor batzuk labarretara gerturatzera gonbidatuko gaituzte. Horietako batetik Dunbak (Zabala eta Luzie) edo Harkaitz bikiak izenez ezagutzen diren harri-uharte bitxiak ikusteko aukera izango dugu. Elezaharraren arabera Pirinioetako Jaungorriak Baionako katedrala suntsitu asmoz, Aiako Harritik bi harri jaurti eta Hendaiako hondartzaren ondora erori ziren. Inguru honetan ere lauburua tailaturik duten bi mugarri ikus daitezke.

Abadiko Dunbak edo Bikiak

Bunker baten gainean kokaturik haize-arrosa bat ikusiko dugu

Bigarren Mundu-Gerran erabilitako bunker batzuen tartetik pasa eta Santa Ana muturrera iritsiko gara. Bunker baten gainean kokaturik haize-arrosa bat ikusiko dugu eta metro batzuk aurrerago itsaslabar bertikalak. Mutur honetatik Iparraldeko kostaren ikuspegi zabala izango dugu. Atzera egingo dugu eta ezkerretik ateratzen den bidezidorrean barna Loiako badia inguratuko dugu.

Abadiako lurrak atzean utzi eta kostako bide erosotik aurrera egingo dugu 1928-30 urteen artean eraiki zuten Haizabia hotel ederraren ondoraino jaitsiz. Bidea errepidera gerturatu eta honen paraleloan beteko dugu hurrengo zatia. Gero, labarren gainetik hedatzen den bideak Zokoa herriraino eramango gaitu eta gertu ikusiko dugun Ziburu herrirantz zuzen-



Aturri ibaia Pirinioetako lurretan jaio ondoren, 335 kilometro inguruko ibilbidea egiten du Bokalen itsasoratu arte. Gixune inguruan, Biduzeren urak bildu ondoren, Lapurdin sartzen da. Ahurti, Urketa eta Lehuntzetik pasa eta Baionara iristean guztira 30 kilometro osatzen ditu Euskal Herrian zehar. 130 kilometro nabigagarriak dira eta

duko ditugu gure urratsak. Hemendik aurrera eta Donibane Lohizuneraino ingurune hiritarragoa izango dugu.

Hondartzaren pasealekutik Santa Barbara puntaraino igoko gara eta bertatik Lapurdiko itsasertzaren ikuspegi zabala izango dugu. Gerrako bunker ugarien ondotik pasa eta Artxiloako gurutzeraino iritsiko gara. Puntu honetatik aitzina, askoz hiritarragoa gertatuko zaigu, tarteka labarren ondorik marrazten den bidetik ibiliko bagara ere, turismoarentzat prestatutako inguruneak nagusituko zaizkigu. Bertan dauden hondartzen ondoraino jaitsiko gara, Erromardie, Lafitenia eta Zenitzeko hondartzetaraino hain zuzen ere. Surflariz beteta egon ohi diren Getariako hondartza hauek gibelean utzi eta Bidarte herrian sartuko gara Uhabia hondartzatik. Ibilaldia, berriz, gain batean dagoen Madalen kaperaren ondoan amaituko dugu. Bidarteko kaperarik zaharrena den hau 1817an hurakan batek suntsitu eta hiru urte beranduago berreraikia izan zen. Tradizioaren arabera, marinel batzuk atariaren aitzinean lurperatuak izaten omen ziren.

BARTAK

Ahurtiko elizaren ondotik atera eta herriko kale nagusia zeharkatuko dugu bidegurutzera iritsi arte. Puntu honetan, Notre-Dame des Sources-en irudiaren eta ikuztegi zaharraren ondotik pasako gara. Xendak Aturri aldera eramango gaitu eta Ahurtiko portuan izango gara laster. Hemendik aurrera ikusiko ditugun GR-8aren bide-seinale zurigorriek eta PRaren marka horiek lagunduko digute ibilaldian zehar.

Ibaiaren paraleloan doan bide zabala jarraituz egurrezko hesi baten ondora iritsiko gara. Bide nagusia utzi eta angelu zuzena eginez ezkerrera ateratzen den bidea hartuko dugu. Berehala, eskuinera biratu eta arto soroen artean marrazten den bidetik aurrera joko dugu. Errepidera ateratzean hau gurutzatu eta pista zabala segituz Istiaü landetxearen ondora aterako gara. Ederki berritu duten XVII. mendeko etxearen ondotik Ardanabi erreka igarotzen da eta bi kilometro beherago Aturri ibaian isurtzen ditu bere urak.

Aurrera doan bidea utzi eta ezkerrera ateratzen den harrizkoa jarraituko dugu errekaren paraleloan. Berriro etorritako bidetik atzera egin, zubia igaro eta lehengo bidetik segituz ezker aldean urmael bat utziko dugu. Metro batzuk aurrerago GR-8a utzi eta ezkerretik ateratzen den xenda hartuko dugu bide-seinale horiak jarraituz. Zuhaitz eta landareek ederki mugatzen duten bide honetatik Etxepetako Bartetara aterako gara, Aturriren urak gainezkatzen direnean bustitzen dituzten eremura hain zuzen.

Aturriren urak gainezkatzen direnean bustitzen dituzten eremuak dira bartak



horregatik izan da komunikabide garrantzitsua merkataritzarako. Baina Aturriko ur lasai hauek ur-emari handia ekartzen dutenean bere inguruan dituen eremu zabalak urgaineztatzen dituzte. Lur hauek "Bartak" (frantsesez Barthes) deritzate. Gune ureztagarri hauetan hiru ingurune desberdin sortu dira: murgilpen mugatutako ingurune irekiak (nekazaritza), erabat urperatutako ingurune irekiak (bazka-larreak) eta baso hezeak (aldakorrak altueran eta dentsitatean). Bidetik at, urmaelaren ertzera gerturatzea merezi du, bertako landare eta animalia ugariek osatzen duten ingurune aberatsaz ohartzeko.

Seinalatutako bidera itzuli eta lurrezko pista zabaletik aurrera egingo dugu gorabehera handirik gabe. Baserri batzuen ondotik pasa eta berehala Ahurtiko portutik oso gertu gaudela konturatuko gara. Errepide nagusira atera eta "La Galupe" jatetxe ezagunaren ondotik Aturri ibaiaren ertzean dagoen portura aterako gara. Hemendik herrira hasieran erabili dugun bidea hartuko dugu.

Aturri ibaia Ahurtitik pasatzen

LUR

XOLDOKO GAINA ETA MANDDALE

Hendaiatik abiatu eta GR-10a jarraituz, Atlantikotik Mediterraneo itsasoraino zeharkaldia egin nahi duen mendizaleak, Xoldoko gainako gandor biribilduaren hegietan aurkituko ditu lehen oztopoak. Garoz estalirik egoten den mendi honek, Iparraldeko kostaldearen eta Bidasoako haranaren gaindi ikuspegi ezin hobea eskaintzen du.

Biriatu herritik abiatuko gara. Lapurdiko udalerri honen ekonomia jarduerarik nagusienak nekazaritza eta abeltzaintza diren arren, turismoa eta zerbitzu-sektorea ere garatu dira. San Martin elizaren inguruan dagoen hilerri txikian, ikur-gurutze erako oroitarri diskoideoak ageri dira han eta hemen. Parrokiaren alde batetik bide estu batera eramaten duten eskailera batzuetatik jaitsi eta handik berehala "Kukutxoa" etxearen aurretik pasako gara. GR-10ari dagozkion bide-seinaleek erakusten diguten norabidean igotzen hasiko gara. Laster, bide balizatua utzi eta aurrez aurre ditugun Perdrixko haitzen ondora joko dugu malda pikoari aurre eginez. Argindar poste erraldoien azpitik igaro eta gero, xenda nabarmenetik egingo dugu aurrera. Bide nagusiarekin bat egin eta gandor biribilduan zehar erraz helduko gara Xoldoko gainako tontorrera.

Ikuspegi zabalaz gozatzeko tartea hartuko dugu. Euskal kostaldeko herriak ez ezik gertuko mendien ikuspegi bikaina izango dugu. Pirinioetako zeharkaldia egiteko lehen oztopoa den mendi honen gailurrari bizkarra eman eta Osingo lepo aldera jaisten hasiko gara malda bizian. Lepora heldu eta aurrera jarraitu aurretik, iparralderantz jiratu eta metro gutxira, hileta ganbara eta tumulua deseginda dituen Osingo trikuharria ikusiko dugu. Bidera itzuli eta Bizkarsoro leporantz jaisten den bide zabala hartuko dugu. Bide tarte honen hasieran, gorosti gazte bakan batzuk nabarmentzen dira, baina bidean aurrera egin ahala, altuera handiago duten gorosti mardulek baso txikiak osatzen dituztela ohartuko gara. Puntu honetara heltzean, gertu dagoen lakura zuzentzen den pista zabala gure ezkerrera utzi eta Manddalerantz igotzen dena hartuko dugu.

> Errobi ibaiaren bokaleraino marrazten den kostaldean Lapurdiko herriak han eta hemen barreiaturik

Bizkarsoro lepotik abiatzean, hasieran gorosti (ilex aquifolium) gazte multzo handi bat ikusiko dugu bide bazterrean, baina ondoren hauek desagertu eta bidezidorra ote artean barneratuko da. Horrela, Faalegiko gaina ekialdetik igaro eta Joncs lepora erraz ailegatuko gara. Azken aldapa ez da oso luzea eta urak higatu duen bidezidorra jarraituz Manddalera iritsiko gara. Bertan, guda garaiko lubakien aztarnen ondoan Lapurdi eta Nafarroa banatzen dituen 9. mugarria eta gutunontzia aurkituko ditugu. Iparraldean, Txingudiko badian hasi eta Errobi ibaiaren bokaleraino marrazten den kostaldean Lapurdiko herriak han eta hemen barreiaturik ikusi ahal izango ditugu. Mendebalderantz begiratuz gero, Aiako Harriko granitozko tontor bikainak eta ekialdean, berriz, Larhun mendiko gailurrean, ostatu erraldoiak,



Kalbariora heltzen

TDFko antena itzela,... turismo eta teknikaren izenean eraikitako monumentu eroak. Azkenik, hegoaldean Saioa, Mendaur, Arxuria eta Nafarroako mendi anitz.

Begien aurrean dugun guztia identifikatzen luze joko genuke eta gure interesa ase ostean, martxan jarriko gara. Ekialderantz hedatzen den gandorrari helduko diogu eta 10. mugarria atzean utzi eta garo-lekuaren ondotik doan aldapan behera jaisten hasiko gara. Azkar galduko dugu altuera eta haitzen artean bidezidorra bilatu aurretik Manddaleko harrespilaren ondotik pasako gara. Historiaurreko monumentu megalitiko honetatik gertu egungo zibilizazioaren aztarnak aurkituko ditugu: Ibardingo bentak. Dendak, tabernak, jatetxeak, aparkaleku mordoa... ohikoa da inguru hauek asteburuetan jendez mukuru beteta ikustea, egun pasa egiteko leku aproposik ez balego bezala.

Kalbario mendi gainean kapera txiki bat dago eta han bizi izan zen ermitau edo apez bat

Benten gain aldean GR-10aren bide-seinale zurigorria utzi eta honen ezker aldera jaisten den aldapari eutsiko diogu segidan lakuraino zuzentzen den pista zabaletik aurrera eginez. Batzarlekuko ingurua atzean utzi eta lakura gerturatzean honen urak eusten dituen hormara gerturatuko gara. Beste aldera pasa eta bertatik ateratzen den xendatik iparralderantz joko dugu. Laster, borda baten ondora iristean ikusiko dugun bidegurutzean, ezkerreko bidea aukeratuko dugu. Xoldoko gaina mendiaren magalean zehar marrazten den bidea segituz, Kalbariora gerturatuko gara. Malda labur bat gainditu eta kaperaren ondora igoko gara. Toki paregabe hau atzean utzi eta Larretxeko Borda etxe-multzora jaitsiko gara. Hemendik Biriatura Perdrixko gandor baxuenaren azpitik pasatzen den bidea bilatuko dugu eta bertatik erraz egingo dugu aurrera ibilaldiaren hasieran hartu dugun bidearekin bat egin arte. Aldapan behera, Biriatu herrira itzuliko gara.

LARHUN

Lapurdiko mendi hau oso berezia da arrazoi askorengatik. Makina bat bidek bertara igotzeko aukera eskaintzen digute eta bere tontorretik dagoen ikuspegia zabala da oso. Hala ere esan behar da oso humanizatuta dagoela eta seguruenik Euskal Herriko tontorrik turistikoena da, batik bat Napoleon III.arekin ezkonduta zegoen Eugenia de Montijo enperatrizak modan jarri zuenetik. Bere omenez, 1912an "Le Petit Train" kremailera-trena eraiki zen, San Inazio lepotik abiatu eta turistaz beterik tontorretik oso gertura igotzen dena. Geltokiaz gain, TB errepikagailu erraldoia, orientatzeko mahai bat eta bertan jan eta oroigarriak erosi daitezkeen pare bat benta. Egun eguzkitsuetan jendez mukuru egoten da eta zaila da isiltasuna eta lasaitasuna izatea.

Napoleon III.arekin ezkonduta zegoen Eugenia de Montijo enperatrizak modan jarri zuen

Mantton Baita aterpetik gertu dagoen aparkalekutik abiatu eta honen ondotik ateratzen den bide nabarmenetik martxan jarriko gara. GR-10aren marka zurigorriak lagun pixkanaka altuera hartuko dugu. Basotik atera eta bere-



hala ikusiko ditugu Larhun mendiaren gailurra desitxuratzen dituzten antenak. Konturatu orduko, Errepausuko lepora iritsiko gara Hiruiturrietatik gertu. Sara aldera zuzentzen den GR-10a utzi eta gure eskuinetik zabaltzen den bidean barna aurrera egingo dugu. Berehala iritsiko gara azken aldapa pikoaren hasiera-ra. Xendan zehar, sigi-sagan azken ahalegina egingo dugu tontorrera iristeko, azken metroak trenbidearen ondotik betez. 900 metroko altuera duen mendi honek bi ezaugarri ditu. Lehena bere ikuspegi zabala da, bertatik Lapurdi eta Bidasoako inguruak ederki ikusteaz gain, Pirinio eta euskal mendi askoren tontorrak identifika daitezke. Bigarrena, berriz, tontorra desitxuratzen dituzten bentak eta antenak. Hala ere, eguraldia lagun, mendi, kostalde eta bestelako paisaiaz gozatuko dugu.

Itzulera, Berara doan pista zabaletik jaisten hasiko dugu. Zizkuitzera iristean, pista utzi eta eskuinetik marrazten den xenda nabarmena bilatuko dugu. Larhunttipiren magaletik zabaltzen den bide ederretik erraz helduko gara Subizia muinoaren oinera. Ezkerretik ateratzen den bidea aukeratuko dugu malda bizian Yagola Bentaren ondora jaitsiz. Bide nabarmenak, berehala utziko gaitu Deskargahandiko lepoan. Puntu honetan, berriro Ibardinetik datorren GR-10aren bide-seinale zurigorriekin bat egingo dugu eta hauek segituz Mantton Baitara heldu aurretik, eskuinetik ateratzen den xenda bat hartuko dugu, gainezka datorren Larhungo erreka gainditu eta aparkalekura itzuliko gara.

ERREBI ETA SOPORRO

Nafarroarekin muga egiten duen Ainhoa udalerriaren lehen aipamenak XIII. mendekoak dira. Erdi Aroan Nafarroak Done Jakue bideko erromesentzat sortutako bastida zen, bertakoak Baztango jaunaren menpe zeudelarik. Herriaren kokagunea dela eta kontrabando-gune izan da historian zehar. Udalerri honen ekonomia jarduera nagusiak abeltzaintza eta nekazaritza badira ere, azken urte hauetan turismoa asko garatu da. Bertan aurkituko dugun elizaren zatirik zaharrena XIV. mendekoa da.

Herrian ibilgailua utzi ostean, elizaren aurrean ekialderantz ateratzen den bidea jarraituko dugu eta Gurutze-bidean GR-10aren bide-seinaleei jarraituko diegu segidan. Hasieran asfaltatuta dagoen eta ondoren pista bihurtzen den igoera bidetik ordubete baino gutxiago beharko dugu zuhaizti batean babesturik dagoen ermitara heltzeko. Gertu, hiru gurutze erraldoi hilarriz inguraturik. Arrantzeko Ama Birddinaren (Arantzako Ama Birjina) kapera honen istorioa irakurri ahal izango dugu.

Zizkuitzetik kostaldearen ikuspegi zabala

Aspalditik Ainhoarrak eta, inguruko herrietako biztanleak igaiten dira kaperarat prozesioan



Kapera atzean utzi eta Errebi mendiaren magalean hedatzen den GR-10aren bide-seinale zurigorriek erakusten diguten norabidean abiatuko gara. Mendia inguratuko dugu Artzaingo lepora iritsiz. Aurrez aurre dugun Soporro tontorrerako bidea hartu eta berehala "ehiztarien habia dotoreak" aurkituko ditugu, denak ilaran, lerroan mendiari atxikirik, eta udazkenean nola ez, militarrez jantzitako "ehiztari-eskopeteroak" parapeto horien atzean jarri eta txoriak noiz pasa zain. Gure mendi askoren ohiko postala. Garo artean zabaltzen den bide erosotik aurrera egingo dugu, belarrezko alfonbra bailitz, baina laster estutu eta malda motz baina gogor bati ekin behar izango dio-

Gurutzeak eta hilarriak

gu tontorrera heltzeko. Ez dugu gailurrean gaudela adierazten duen seinalerik aurkituko eta hori neurri batean ez dago batere gaizki. Hobe horrela eta ez Euskal Herriko zenbait mendi gailur desitxuratzen duten oroigarri askoren feria ikustea baino (estelak, gurutzeak, plakak, monumentuak...). Nahikoa eta soberan genuke mendiaren izena eta altuera jartzen duen gutunontzi txiki batekin. Parez pare, gotorleku garaiezin baten itxura duen Mondarrain mendi eder eta erakargarria.

Haitzen artean bilatuko dugu bidea eta laster ikusiko dugu Gaineko borda lepoa, izen bera daraman bordaren ondoan. Hara jaisteko mendiaren gandorra jarraituko dugu xenda hestu batetik altuera azkar gal-

Errebitik Ainhoara jaisten

duz. Pistarekin bat egingo dugu eta lepora heltzean hau utzi, eskuinera segi eta bordaren ondoan dagoen mahaiaren inguruan eseriko gara hamaiketakoa egiteko. Soporro eta Mondarrain mendien artean dagoen paraje hau benetan ederra da, zoritxarrez ez da arraroa izaten gertu pasatzen den pistan barrena motorren hotsa entzutea. Mendi hauen magaletan barreiaturik dauden baserriak komunikatzeko pista anitz ireki dira eta batzuetan zaila izaten da aintzinako bideak aurkitzea.

Soporro eta Mondarrain mendien artean dagoen paraje hau benetan ederra da



Inguruaz gozatu ondoren, abiapuntura itzultzea faltako zaigu eta horretarako GR-10aren bide-seinaleak jarraituko ditugu Ainhoa herriraino. Pistara itzuli eta Artzaingo lepora igoko gara. Ezkerretik Errebiko tontorrera igo eta gora iristean, gandor belartsua jarraitu besterik ez dugu egin behar tontorra dela adierazten duen harri baten ondora heltzeko. Aldapa pikoan zehar altuera galduko dugu Arantzako Ama Birjinaren kaperaren ondora heltzeko eta hemendik igotako bidetik jaitsiko gara abiapuntura.

MONDARRAIN ETA ARTZAMENDI

Errobi eta Baztango haranen artean gailentzen diren mendien sakan eta mazeletan zehar, gizakiaren bilakaeraren lekuko izan diren aztarnekin batera, naturak bortizki zizelatutako gutiziak aurkitu ahal izango ditugu. Errolanen ataka mitikotik abiatu, Artzamendiko tontorra desitxuratzen duten eraikuntzetatik pasa eta Mehatze lepoko monumentu megalitikoen ingurura helduko gara, historian zehar bidaiatzeko parada izango dugularik. Itzulera, berriz, Mondarraindik burutuko dugu.

Errolanen Atakan emango diogu hasiera ibilaldiari. Errolan euskaldunengandik ihesi zihoala, bere zaldiak kolerak harturik mendi-ataka hau ireki zuela diote batzuk, eta Karlomagnoren ilobak bere tropekin Zaragozara zihoala ezpata-kolpez irekitakoa dela diote bestek. Elezahar desberdinak daude Errolanen atakaren jatorriari buruz, baina errealitatea bestelakoa da, Laxiako baserritarrak Itsasu herrira heldu ahal izateko Ategaitzetako haizpitartean zehar bidea egin beharrak ataka irekitzera bultzatu zituen.

Zubia igaro eta Errobi ibaiaren ertzeko errepide txikiari jarraituko diogu. Bidarrairaino luzatzen den bidea laster utzi eta eskuinera joko dugu maldan gora. Betiribitartea baserrira heltzean galipotezko errepidea amaituko da eta Artzamendira igotzeko bide-seinale horiak jarraituko ditugu. Ordeka Berdera daraman bide zaharrari helduko diogu eta kasik 600 metroko altueran dagoen ordeka hau zeharkatzean, teilatuak hareharrizko harlauez eginak dituzten bordak han-hemenka barreiaturik ikusiko ditugu. Bide normaletik at geratzen den Maldako tontorrera igotzeko, eskuinerantz joko dugu ia ikusgaitz den xenda bat jarraituz. Bidera itzuli eta arrosa koloreko hareharrizko harkaitzen artetik zuhaitz bakar baten ondoan dagoen bordatik ikusiko dugu lehen aldiz, Artzamendiko "erraldoia". Azken malda pikoari ekingo diogu eta gailurraren ondoan dagoen sapaldara iritsiko gara.

Teilatuak hareharrizko harlauez eginak dituzten bordak han-hemenka barreiaturik daude

Lapurdiko tontor garaiena desitxuratzen duten eraikuntza erraldoiak ahal dugun moduan saihestuz, ikuspegiaren edertasunaz gozatzeko tarte bat hartuko dugu: Larhun, Mondarrain, Hauza, Baigura, Haltzamendi, Urtsua, Alkaxuri, Orhi... Gizakiak, zientzia eta komunikazioaren izenean eraikitako "monumentu" zatar horiei bizkarra emanez, Mehatzeko lepora jaisteko mendia zeharkatzen duen (zauritzen duen) errepidearen paraleloan jaisten hasiko gara xenda batetik. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Nafarroako lurraldeak elkartzen diren lepo honetatik gertu Burdin Aroko zenbait harrespil aurkituko ditugu. GR-10aren marka zurigorriek lehen zatian jarraitu beharreko bidea erakutsiko digute. Bidetik at, metro batzuk gorago, harrespil osatuenetako bat aurkituko dugu eta bere zazpi harri handiek osatzen duten zirkuluaren barruan "81" mugarria!

Errepidean zehar beteko dugu hurrengo tartea, beti ere GR-10aren markak segituz. Bihurgune handi batean, hau utzi eta ezker aldetik marrazten den xendatik jaisten hasiko gara Iguzkimendiko magalean zehar. Laster altuera galdu eta Veaux lepora helduko gara. Errepidea gurutzatu eta Esteben bordara igoko gara. Bide-seinaleak bilatu eta etxearen atzeko aldetik abiatuko gara eta altuerarik galdu-irabazi gabe, ia hiru kilometro beteko ditugu xenda eroso batek Zuharretako lepoan utziko gaituen arte. Parez-pare Urreztiko haitzak izango ditugu eta atzerago Mondarraingo gotorlekua. Errebi eta Soporroko gainak inguratuz Ainhoa herriraino doan bide zabala utzi eta malda piko bati ekingo diogu. Haitzetara heldu eta Mondarrainera igotzen hasi aurretik biak banatzen dituen lepora jaitsiko gara.

Erromatarren gotorleku baten hondakinak gordetzen dituen mendi ederra



Ordeka Berdetik Artzamendirantz

Gure aurrean, kuartzitazko blokeez inguratutako harkaitzeko frontea ageriko da. Belardian ikusgaitz den xenda bilatuko dugu eta azken metroak haitzen artean bete. Erromatarren gotorleku baten hondakinak gordetzen dituen mendi eder honek Lapurdiko eta euskal kostaldeko panoramika bikaina eskaintzen du. Tontorra atzean utzi eta Amezketako lepo aldera jaisten hasiko gara. Hasieran haitz artean, gero pagadian murgilduz eta azkenean belarretan aldapa pikoa jaitsiz. Lepotik, Ezkondrai tontorra gure ezkerrera utzita, Legarre mendatera helduko gara. Errepidetik atzera egin, kilometro erdi pasa eta ezkerretik ateratzen den bidea hartuko dugu. Bide eroso honek Laxia errekako uren murmurioa eta autoen motorren hotsak nahasten dira lehen etxeetara eramango gaitu. Jatetxeak beterik, Errobiko ur-lasterretan jendea bainatzen, Errolanen Atakan turista mordoa argazkiak ateratzen... eta gu, zer? Errealitatetik ihesi!